IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 910
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net

I. ERANSKINA

1.- Oinarriak
2.- Araudia
3.- Eguneko Arreta Zerbitzuaren definizioa
4.- Helburuak
    4.1.- Orokorra
    4.2.- Espezifikoak
5.- Eremu geografikoa
6.- Hartzaileak. Baldintzak
7.- Prestazioak eta jarduerak
    a) Osasun kognitiboa sustatzeko jarduerak
    b) Osasun fisikoa eta psikikoa sustatzeko jarduerak
    c) Aisialdiko, kulturako eta eskuzko jarduerak
    d) Gizarte-harremanak eta komunitatean integratzea sustatzen duten jarduerak.

    7.1.- Erabiltzaileen parte-hartzea sustatzeko estrategiak
    7.2.- Erabiltzaileak eta zerbitzua komunitatera hurbiltzeko estrategiak
8.- Metodologia. Esku-hartze mailak eta jarduera-eremuak
9.- Koordinazio-sistemak
10.- Zerbitzuen ezaugarriak
11.- Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa
12.- Erabiltzaileen betebeharrak
13.- Pasaiako Udalaren betebeharrak
14.- Zentroko langileen betebeharrak
15.- Zerbitzua izapidetzeko prozedura
16.- Itxaron-zerrenda
17.- Zerbitzuari uko egitea
18.- Zerbitzua ukatzea
19.- Ebaluazioa
20.- Zerbitzuan genero-ikuspegia sartzea

1.- Oinarriak

Herri garatuetako herritarrak zahartzen joatea etengabe artatu beharreko gaia da agintarientzat, eta bereziki lantzekoa gobernu guztien politiketan. Demografikoki zer neurri hartzen duen eta herriaren adinez adineko egituraren eraketan zer eragin duen aztertzeak baino garrantzi handiagoa hartzen du zahartzeak zer ondorio sozial, politiko eta ekonomiko dituen.

Azken hogei urteotan, gainerako herri garatuetan bezala, Euskadin herriaren etengabeko zahartze-prozesua gertatzen ari da. Horrek badu alderdi positibo bat, izan ere, pertsonak gero eta luzaroago bizi dira. Baina, era berean, erronka handi bat dakar gizartearentzat: pertsona guztiak beren bizitza osoan ahalik eta baldintza egokienetan bizi ahal izateko premia. Horretarako, estrategia, tresna eta politika egokienak sortu behar dira, haien ongizatea bermatze aldera.

Helburu hori lortzeak gizartearen jardun-eremu guztiei eragiten die. Esate baterako, gizarte-eremuari eragiten dio; izan ere, adinean aurrera egin ahala, pertsonek premia berriak izaten dituzte, eta premia horien araberako akonpainamendua eta baliabideak behar dituzte.

Adineko pertsonen osasun-egoera zehazteko garaian, ezin gara mugatu gaixotasunak dituzten edo ez aztertzera; beharrezkoa da haien gaitasun funtzionalaren maila ere baloratzea eta kontuan

hartzea. Hori dela eta, eguneroko bizitzako jardueretarako independentzia eta autonomia dira adinekoen osasunaren eta ongizatearen alderdi nagusietako bat. Ildo horretan, garrantzitsua da beren burua zaintzeko gaitasun potentzialak identifikatzea, jakiteko pertsona horiek zenbateraino ase ditzaketen beren bizi-premiak, zenbateraino senda daitezkeen kalteetatik eta gaixotasunetatik, eta nola moldatzen diren eskura dituzten zerbitzuak, laguntzak eta baliabideak bilatzeko orduan; bizitza duina eta osasun-egoera optimoa izateko, haien ezaugarrien eta baldintzen arabera; izan ere, batzuetan ez dituzte zerbitzu eta baliabide horiek ezagutzen, edo nekez eskura ditzakete.

Azken urteotan, zahartze aktiboa sustatzeko, gizarte-prestazioen sistema arautzeko eta mendetasunari arreta emateko legeak eta dekretuak argitaratu dira. Ekimen eta tresna horiek oso beharrezkoak izanik ere, ez diete behar guztiei erantzuten. Ildo horretan, arreta jarri nahi da hauskortasun-egoeran edo mendekotasun moderatuko egoeran dauden pertsonengan; bizitzako azken etapari baldintza egokietan eta duintasun pertsonala errespetatuta aurre egiteko orientazioa, aholkularitza, akonpainamendua eta laguntza behar duten bizi-egoeretan daudenengan.

Hauskortasuna "belaki kontzeptu" gisa ulertzen da, bizitza pertsonal eta sozialaren hainbat alderdi eta alderekin lotuta baitago. Hertsiki lotuta dago bakardadea, mendekotasuna, babesgabezia, bazterkeria, segurtasun gabezia, funtzionaltasuna eta gaitasuna bezalako terminoekin. Termino horien guztien arabera, hauskortasuna eskasiarekin eta segurtasun gabeziekin lotzen dute; baita erantzuna emateko mugak izatearekin ere.

Hortaz, egoki artatu ezean, hauskortasuna mendekotasunaren aurreko aldia izan liteke. Erabakitzeko gaitasuna duten, zailtasunak izan arren etxean bizi diren eta haien ingurunean mantendu nahi duten pertsonak dira. Horregatik, garrantzi handikoa da hauskortasun egoeran dauden lagunen detekzioa eta balorazioa egitea, eta haiek artatzea eta haien jarraipena egitea, aldi horretan egoki esku hartzeak zalantzarik gabe bizitzan hobekuntza ekarriko duelako eta baliabideen kudeaketan eraginkortasun handiagoa izango delako.

Horregatik guztiagatik, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 29.5 artikuluari erantzunez (lege horren arabera, oinarrizko gizarte-zerbitzuak beteko ditu 22. artikuluan aurreikusitako lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak, eta horien artean dago “Gizarte-zerbitzuen eremuan parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua”), udalek hainbat zerbitzu ezarri dituzte hirugarren adinekoen parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 33. artikuluak (“Zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak antolatzea”) dioenez, udal eskumenekoak dira, besteak beste, gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3), adinekoen parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua (1.5) eta adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua (1.7).

Pasaian, 2011. urtean, Elizgain eguneko arreta zerbitzua jarri zen abian, gizarte-isolamendurako arriskua duten adineko pertsona zaurgarriei, hauskorrei eta/edo mendeko moderatuei (I. gradua) zuzendua. Zerbitzu horiek gailu bat jartzen dute pertsonen eskura, eta gailu horren bitartez, laguntza eskaintzen zaie beren arreta-premia espezifikoen arabera. Horrela, zerbitzu horien helburu nagusia hau da: mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) dauden adinekoei autonomiari eusten laguntzea eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea, isolamendu-egoerak konpentsatuz, behar izanez gero. Esku-hartze orokor bat proposatzen da, elkarri lotutako jarduera-multzo bat egingo duena; hau da: adinekoei garapen pertsonal eta kolektiborako leku bat ematen ahaleginduko den zerbitzu integral bat eskaintzea, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzunez. Helburua da problematikak (emozionalak eta/edo psikosozialak) prebenitzea eta hartzaileen bizi-kalitatea hobetzea, haien narriadura prebenitzea, haien autonomia ahalik eta gehien sustatzea eta isolamendua saihestea, ahal den neurrian gizarte-jarduerak eta pertsonen arteko harremanak sustatuz.

2018an, Pasaian, Hurkoa Fundazioaren eskutik, hauskortasunari buruzko azterlan bat egin zen, eta nahi gabeko bakardade-egoerak, isolamendu-egoerak eta zerbitzuen koordinazio-gaitasunik eza hauteman ziren, besteak beste. Horregatik, hauskortasun-egoeran dauden adineko horiek komunitatera hurbiltzeko eta gizarte- eta komunitate-sarea indartzen laguntzeko, Pasaiako udalerrian Hauskor programa dago martxan duela urte batzuetatik. Gizarte- eta komunitate-bizitzan parte hartzea sustatu nahi du, eta adineko pertsona udalerriarekin lotzea, harremanak ezartzen lagunduz eta komunitate-sarera hurbiltzea ahalbidetuz. Era berean, etxea eta komunitatea lehenesten dira zaintza- eta arreta-gune gisa, eta adinekoak bere etxean bizitzen jarrai dezan ahalbidetzen da.

2018/2020 urte bitartean, Pasaia Zaintza HerriLab sortu zen, tokian tokiko zaintza-eredu berri bat definitzeko eta garatzeko; gizarte- eta osasun-zerbitzuen koordinazio hobea bultzatuz mendekotasunaren hauskortasunaren arreta-ibilbidean; tokiko gaitasunen garapena ahalbidetuz, esperimentazioari esker; eta pertsona eta komunitatearen parte-hartzea ardatz dituen arreta-ereduaren integrazioa sustatuz. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako eta Pasaian aitzindari gisa garatutako ekimen horren helburua da Tokiko Zaintza Ekosistemen garapena bultzatzea, hauskortasun- eta mendekotasun-egoeran dauden eta beren etxean bizi diren adinekoen arreta eta zaintza hobetzeko. Zainketen Tokiko Ekosistemak, tokiko mailan, udalerriaren, bertako biztanleen eta erabiltzaileen beharrak, osasun-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu komunitarioak biltzen ditu, eta ekimen soziala eta ekimen pribatua lotzen ditu zaintzen eremuan.

Pasaiako udalerriko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuek berregituraketa sakona egin dute azken urteotan, adinekoei arreta emateko ibilbide berrian esku hartzearen erronkei aurre egin ahal izateko eta, aldi berean, Zainketen Tokiko Ekosistema sortzeko eta mantentzeko. Gure tokiko ingurunean, hauskortasunaren eta mendekotasunaren arteko arreta-continuuma artikulatzeko beharrezkoak diren metodologiak aztertu dira. Horretarako, arreta ematen den ingurunean zein prozesuk, zerbitzuk eta erakundek jarduten duten aztertu, eta guztiak integratu eta antolatu egin behar dira, arreta-eredu koordinatua, komunitarioa eta pertsona ardatz hartzen duena izateko. Ibilbide horretan Hauskor programaren esku-hartzea finkatu da, berritzailea eta prebentiboa delako, eta ikuspegi horretatik mendetasun-egoeraren aurreko arreta eskain dezakeelako, gizarte-hauskortasuneko egoeran dauden adinekoen baldintzen eta bizi-kalitatearen eraginkortasun eta efikazia handiagoa lortuz.

Elizgain abian jartzearekin eta Pasaia Zaintza Herrilab garatzearekin lortutako esperientziarekin, ondorioztatu dugu funtsezkoa dela gertutasunean esku hartzea eta laguntza-sare sozialak eraikitzea, Pasaian adineko pertsona batzuek duten isolamendua saihesteko. Horregatik, garrantzi handikoa da eguneko arreta- zerbitzua ezartzea eta zabaltzea, erreferentziazko eta gertuko puntu bat izan dadin, ez bakarrik lagun hauentzat, baita komunitatearentzat eta bertako gizarte-eragileentzat ere.

2020. urteaz geroztik, Pasaia Zaintza Herrilab-en eskutik, Zainketen Tokiko Ekosistemaren parte diren lau berrikuntza-proiektu jarri dira abian, helburu bera dutenak: ohiko bizi-inguruneko arretaren kalitatea hobetzea.

Etxean Bizi proiektua

Etxean Bizi proiektu aitzindaria da Gipuzkoan, kasuaren kudeaketa-metodologian oinarritua, eta bizitza duina eta betea mantenduz, zaintzak behar dituzten adinekoek beren etxean bizitzen jarraitu ahal izatea du helburu.

Gizabanakoa ardatz hartzen duen zaintza integralaren ereduan oinarrituta dago kontzeptu-esparrua. Eredu horren bitartez zainketak behar dituzten pertsonen eta haien zaintzaileen bizi-

kalitatea lehenesten da. Haien premietatik abiatu, eta batez ere, haien eskubideak bermatzen direla, eta haien lehentasunak eta nahiak zaintzan eta eguneroko bizitzan errespetatzen direla. Era berean, eredu horretatik esku hartzeak esan nahi du modu global, integratu eta jarraituan erantzuten zaiela pertsonen mendekotasun-egoeratik eratorritako premiei, eta haien bizi-proiektuak ahalik eta gehien bereganatzen laguntzen zaiela.

Oinarrizko kasuak kudeatzeko gizarte-langileek garatu duten metodologiak adierazten du zerbitzu-zorrotik ezarritako laguntza publikoak kudeatzea baino harago doala, izan ere, pertsonak eta haien familia-errealitatea eta ingurunea sakonago ezagutzeko aukera izaten da, eta pertsona batek behar izan ditzakeen laguntza guztien berri izateaz gain, laguntza horiei buruzko aholkua jaso, eta kudeatu egiten ditu, nahiz publikoak nahiz pribatuak izan, edo gizarte-, osasun- edo komunitate-esparrukoak badira ere.

Pertsonaren eta haren familiaren erreferentziazko figura denez, kasuaren kudeatzaileak pertsona bakoitzak bere bizi-prozesuan laguntza- eta zaintza-plan bakarra izatea sustatzen du, eta zainketa-ibilbidean zehar jarraian behar izan ditzakeen laguntza guztiak izatea ere bai. Azken batean, beharrezkoak diren zainketak lortzeko pertsonek eta familiek sistema ezberdinetan ate joka ibiltzea saihesten da.

Proiektu honetan zaintzara biltzen diren eragileen eginkizunak sartzen dira: familiak, gizarte-zerbitzuak, etxez etxeko zerbitzua, lehen mailako arreta, etxeko enpleguaren eta zainketen sektorea, laguntzaile pertsonalak, boluntarioak, hurbileko zerbitzuak eta parte-hartze komunitarioa.

Hauskor proiektua

Hauskor programak gizarte eta hezkuntza alorreko, eta psikologia eta gizarte alorreko zerbitzua eskaintzen du, adinekoen gizarte-hauskortasun egoeretan artatze-lana egiteko etxebizitzan edo ingurune komunitarioan, iraupen luzekoen zainketa-estrategiarekin bat.

Etxea eta komunitatea lehenesten dira zaintza- eta arreta-gune gisa, eta adinekoak bere etxean bizitzen jarrai dezan ahalbidetzen da.

Adinekoek euren bizimodua inguruan garatzen jarraitzeko eta bizitza-proiektuan aurrera egiteko aukera izatea bermatzen duten estrategia eta politiken alde egiten da. Akonpainamendua esku hartzeko metodologia gisa erabiliz. Metodologia horrek aukera ematen du lotura bat eraikitzeko eta pertsonarekin esku hartzeko prozesu bat diseinatzeko, haren ikuspuntua, lehentasunak eta testuinguruaren baldintzak kontuan hartuta.

Ikuspegi komunitariotik, pertsonak bere ingurunearekin lotuta jarrai dezan lanketa bat egiten da, eta, aldi berean, sentsibilizazio-lan bat egiten da adinekoen gizarte-hauskortasunaren errealitateari buruz, inguruneko gizarte-sistema eta -eragileekin batera.

Prebentzioaren ikuspegia eskaini nahi da, mendekotasunaren aurreko egoeran arreta jarriz, eta, horrela, bizi-baldintzen eta bizi-kalitatearen eraginkortasun eta efikazia handiagoa lortuz.

Adinkide proiektua

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da Adinkide, eta adinekoen bakardadea prebenitzea eta arintzea da helburu nagusia, inguruko boluntarioen laguntzarekin afektibotasuna eta adiskidetasuna sendotuz. Horretarako, gune komunitarioak sortzen ditu, adin desberdinetako pertsonen arteko adiskidetasun-loturak sortzeko, bai eta "banan-banako" topaketak ere,

hauskortasun-egoeran dauden adinekoen profiletarako.

Aldi berean, adinekoak auzoko beste baliabide batzuetara bildu nahi ditugu, beren eremuan eskaintzen diren baliabideetara eta jardueretara iritsi, eta horietan parte hartu ahal izan dezaten. Horretarako, beste elkarte edo baliabide publiko batzuekin elkartzen gara. Sareko lana funtsezkoa da adinekoei laguntza integralagoa emateko.

Zeharka herritarren sentsibilizazioa lantzen da, adinkeriaren estereotipoak hausteko, eta ekintzak bultzatzen dira adineko pertsonak beren auzoan ikusgarri eta protagonista sentiarazteko.

Ahalegina egiten da haien talentua eta gogoa bultzatzen jarrai dezaten, eta egoera berriak amesten jarrai dezaten. Jarduera artistikoen bidezko tresnak eta metodologia erabil daitezke (musika, antzerkia, kakorratza…) baina azken helburua nork bere burua zaintzea, nork bere buruari entzutea, eta parte-hartzaileen artean konfiantza- eta elkarrekikotasun-loturak sortzea da, laguntza afektiboko sare bat sortuz.

Okencasa proiektua

OKencasa proiektuaren bitartez, zaintzaileei psikologia eta heziketa alorreko zerbitzua eskaintzen zaie, zainketa-talde gisa antolatzen laguntzearren. Aldiro-aldiro egoera biopsikosozialaren ebaluazioa egiten da, eta laguntza-plan pertsonalizatua eskaintzen da, zaintzari eta nork bere zainketa egiteari buruzko prestakuntza eginez, trebetasunetan trebatuz, edo familia-zainketan espezialista diren aldetik laguntza psikosoziala eskainiz, beste zerbitzu batzuen artean. Emaitza klinikoki baliozkotuta dago, eta gainkarga, antsietatea eta depresio-sintomatologia nabarmen murrizten dira, eta zaintzailearen beraren eraginkortasuna nabarmen handitzen da zaintzaren eguneroko erronkei aurre egiteko.

2023an, Euskal Herriko Unibertsitateak I. Tokiko Zaintza Ekosistemaren garrantziaren lehen ebaluazioa egin du, Pasaiako udalerria ardatz hartuta. Ebaluazioaren emaitzak pozgarriak izan dira, eta hobekuntza erakusten dute adinekoen gizarte-integrazioan eta bizi-kalitatean. EHUk aurkeztutako txostenean ekosistemaren estaldura, egokitasun eta heldutasun handia azpimarratzen da, baita Pasaiako udalerriaren eta bertako biztanleen beharrei erantzuteko duen eraginkortasuna ere.

2.- Araudia

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak arautzen du. Sistema hori arreta-sare antolatu bat da, erantzukizun publikokoa; pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egiten duena; sustapen-, aurreikuspen-, babes- eta laguntza-eginkizunen bidez, funtsean pertsonalak eta harremanetakoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

GZESren helburuetako bat da pertsonen autonomia sustatzea eta mendekotasun-egoerek pertsonei nahiz familiei sortzen dizkieten beharrei aurrea hartzea eta erantzutea.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008ko Legearen 22. artikuluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa ezartzen da. Bertan euskal administrazio publikoek eman beharreko prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak sartzen dira, eta bakoitzaren eskumenak zehazten dira. Besteak beste, lehen mailako arretako zerbitzu hauek ezartzen ditu (22.1 artikulua):

1.3 Gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikozialean esku hartzeko zerbitzua.

1.5 Gizarte-zerbitzuen eremuan partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.

1.7 Adineko pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzuak.

3.- Eguneko Arreta Zerbitzuaren definizioa

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak honela definitzen du adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua:

Zerbitzu hauek egunean zehar erabil dezaketen gailu bat jartzen dute pertsonen eskura. Gailu horren bitartez, pertsona horiei arreta emateko premia espezifikoekin lotutako intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaie. Horrela, zerbitzu horien helburu nagusia hau da: mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) dauden adinekoei autonomiari eusten laguntzea eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea, isolamendu-egoerak konpentsatuz, behar izanez gero.

Udaleko gizarte zerbitzuetatik esku-hartze orokor bat garatu nahi da, elkarri lotutako jarduera-multzo bat egingo duena; hau da: adinekoei garapen pertsonal eta kolektiborako leku bat ematen ahaleginduko den zerbitzu integral bat eskaintzea, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzunez. Helburua da problematikak (emozionalak eta/edo psikosozialak) prebenitzea eta hartzaileen bizi-kalitatea hobetzea, haien narriadura prebenitzea, haien autonomia ahalik eta gehien sustatzea eta isolamendua saihestea, ahal den neurrian gizarte-jarduerak eta pertsonen arteko harremanak sustatuz.

Hauskortasun-egoeran dauden adinekoak komunitatera hurbiltzeko eta gizarte- eta komunitate-sarea indartzen laguntzeko, duela urte batzuetatik hona Hauskor programa dago martxan Pasaiako udalerrian. Programa horren helburua da adineko pertsonek bizitza sozialean eta komunitarioan parte har dezaten sustatzea eta haiek udalerriarekin lotzea, harremanak ezartzen lagunduz eta komunitate-sarerako hurbilketa ahalbidetuz. Eguneko zerbitzuarekin eta Hauskor programarekin etxea eta komunitatea lehenesten dira zaintza- eta arreta-gune gisa, eta adinekoak bere etxean bizitzen jarrai dezan ahalbidetzen da.

4.- Helburuak

4.1 Orokorra

Egoera ahulean, hauskorrean eta/edo mendekotasun moderatuan dauden Pasaiako 60 urtetik gorako pertsonei laguntzea, beren ohiko bizitzarekin jarraitu ahal izan dezaten eta komunitatean modu aktiboan iraun dezaten, hala badagokio, bakardade- eta isolamendu-egoerak arinduz.

4.2 Espezifikoak

- Adinekoei beren gizarte-harremanak eta -jarduerak garatzeko esparru egokia eskaintzea.
- Adineko pertsona bere testuinguru pertsonal eta familiarrean integratuta mantentzea.
- Pertsona bakoitzaren independentzia ahalik eta ondoen mantentzea edo berreskuratzea, bere gaitasunen arabera.
- Gaitasun kognitiboen galera atzeratzea, horretarako estimulazio-teknikak erabiliz.
- Taldeko kide izatearen sentimendua lantzea.
- Sozializazioa sustatzea, elkarrekiko komunikazioa landuz.
- Bakardadearen eta isolamenduaren ondorio posibleak saihestea.
- Depresio- eta antsietate-sintomak prebenitzen laguntzea.
- Egunerokotasunarekin eta errealitatearekin duen harremanean sakontzea.
- Aisia modu positiboan sustatzea.
- Jarduera fisikoaren eta osasunaren arteko harremana lantzea.

- Arreta eta memoria indartzea.
- Komunikazioa areagotzea eta norberaren iritziaren adierazpena indartzea.
- Sorkuntza areagotzea hainbat jardueraren bidez.
- Tokiko komunitate-jardueretan parte-hartzea sustatzea.
- Belaunaldien arteko harremanak sustatzea jardueren bidez.

5.- Eremu geografikoa

Jarduketa-eremu geografikoa Pasaiako udalerrira mugatzen da.

6.- Hartzaileak. Baldintzak

Eguneko Arreta Zerbitzuaren hartzaileak honako hauek izango dira:

- Pasaian erroldatuta daudenak.
- Hauskortasun, kalteberatasun, bakardade eta mendetasun moderatu egoeran (1. maila) edo gizarte-zerbitzuek egokitzat jotzen duten beste edozein egoeratan dauden 60 urtetik gorako pertsonak.

Aurreko atalean adierazitako administrazio-betekizunez gain, premia-betekizun hauek ere hartuko dira kontuan:

- Intentsitate txikiko laguntza behar izatea.
- Dagokion tratamendua ez errefusatzea, infekziozko gaixotasun kutsakorra eta/edo burukoa izanez gero.
- Ez izatea jokabide arloko gorabeherarik eta/edo zerbitzuaren antolamendua eta ohiko elkarbizitza larriki kaltetu dezakeen portaerarik; edota, norberarentzat ez ezik, erabiltzaileentzat eta profesionalentzat arriskutsua izan litekeen jokaerarik.
- Osasun laguntza espezializatua eta/edo iraunkorraren beharrik ez izatea, zerbitzuak dituen ahalmen eta zuzkiduretatik harago daudenak.

7.- Prestazioak eta jarduerak

Eguneko zerbitzuak prestazio hauek emango ditu:

- Informazioa.
- Erabiltzaileen balorazioa eta jarraipena.
- Gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikozialean esku hartzea.
- Gizarte-akonpainamendua.
- Garraioa.

Eguneko Arreta Zerbitzuan egiten diren jarduerek honako tipologia hauek izango dituzte:

- Osasun kognitiboa sustatzen duten jarduerak.
- Osasun fisikoa eta psikikoa sustatzen duten jarduerak.
- Aisia- eta kultura-jarduerak eta eskulanak.
- Gizarte-harremanak eta komunitatean integratzea sustatzen duten jarduerak.

a) Osasun kognitiboa sustatzeko jarduerak:

Narriadura kognitiboa saihestera eta/edo atzeratzera eta mendekotasuna prebenitzera bideratutako jarduerak dira, eta honako hauek dira helburu orokorrak:

- Modu egituratu eta errepikatuan, oinarrizko informazioa eta elementuak ematea; subjektuak orientazio espaziala, denborazkoa eta pertsonala kontrola dezan ahalbidetzeko.

- Oroimenaren prozesuan inplikatutako funtzio kognitiboak lantzea: pertzepzioa, arreta, egituraketa, asoziazioa, hizkuntza, espazio- eta denbora-erreferentziak eta integrazioa; horiek hobetzeko eta/edo haien narriadura atzeratzeko.

- Funtzionamendu mnesikoaren mekanismoak (memoria) ezagutaraztea, eta estrategia mnemoteknikoen erabilera eta bizitzan duten aplikazioa irakastea.

- Autoestimua eta gogo-aldartea mantentzea eta/edo hobetzea, subjektua motibatzen duten eta baliagarritasun-sentimendua ematen dioten zereginak eginez, erraz egiteko moduko eta haren gaitasun eta motibazioetara egokitutako zereginekin.

Egun on/Buenos días: benetako orientazioaren teknika artatutako kolektiboaren profilera egokitzea proposatzen du. Estimuluak eta informazio pertsonala eta inguruneari buruzko informazioa modu egituratuan ematean datza. Zerbitzu hau maila aurreratuko tailerra da, narriadura kognitiborik ez duten edo narriadura kognitibo arina duten parte-hartzaile alfabetatuentzat.

Metodologia: saio bakoitzaren hasieran taldeko pertsona batek zein egunetan dauden markatuko du, jaiegunen bat edo data seinalatu bat den adieraziko du, eta horrekin lotutako alderdiak edo oroitzapenak azaltzeko espazio bat eskainiko da. Gainera, garrantzitsua da une oro azaltzea zer egiten ari diren, zer egingo duten edo nora doazen; bai eta etengabe ingurumen-orientazioa indartzea ere, ahozko informazioa osatzeko elementuak erabilita.

Estimulazio kognitiboko tailerra: tailer honetan parte hartzeak adinekoen narriadura kognitiboa atzeratzen laguntzen du; izan ere, memoria erabiltzen ez bada, narriatzeko joera dago, eta horrek eragina du bizi-kalitatean. Memoria-gaitasunean esku hartzeko programa haren mekanismoetan, zerikusia duten gaitasun intelektualetan eta haren funtzionamenduan eragina duten faktore afektiboetan oinarritzen da. Gaitasun eta mekanismo jakin batzuk pixkanaka garatzeko diseinatutako zereginen bidez, pertsonek beren memoriak nola funtzionatzen duen ikasten dute, eta memoria-gaitasuna eta horrek eguneroko bizitzan duen erabilera hobetzen dituzte.

Metodologia: proposatutako metodoa kognitibo-konduktuala da. Instrukzio-, modelatze-, indartze- eta feedback-teknikak erabiltzen dira, eta memoriaren prozesuak berekin dakartzan funtzio intelektualetan trebatzen dira, banakako eta/edo taldeko ariketen bidez. Saioen egituran hainbat alderdi metodologiko garrantzitsu sartzen dira, hala nola:

- Taldeari egun horretan landuko diren mekanismoak aurkeztea.
- Zeregina azaltzea, parte-hartzaileen gaitasunari egokitutako eredu bat eskaintzeko adibideak emanez.
- Gauzatzea: jarrera positiboa eta lorpenak erraztea eta indartzea.
- Bateratze-lana: ikasitakoa lotzea eguneroko bizitzan duen erabilgarritasunarekin, metodoaren aplikazio praktikoa sustatzeko.

b) Osasun fisikoa eta psikikoa sustatzeko jarduerak

Arlo honetan proposatutako jarduerak parte-hartzaileen funtzio fisikoak hobetzera bideratuta daude. Helburuak:

- Gaitasun eta funtzio fisikoei eustea eta horiek garatzea, hala nola indarra, malgutasuna, zirkulazioa edo arnasketa.

- Funtzio psikomotorrak bultzatzea: koordinazio dinamikoa, oreka, begien eta eskuen arteko koordinazioa, espazioaren eta denboraren pertzepzioa.
- Antsietate-sintomekin lotutako arazo psikiko eta fisikoak agertzea prebenitzea.
- Saioetan ikasten dena eguneroko bizitzan aplikatzea, nork bere kabuz praktikatzeko.

Gimnasia egokitua: jarduera fisiko arinetan eta neurrizkoetan parte hartzeak murriztu edo atzeratu egin dezake adineko pertsona osasuntsuek gaixotasun kronikoak izateko duten arriskua, eta hobetu egin dezake haien osasun kognitiboa eta emozionala. Programa honen helburua da arazo fisiko jakin batzuk dituzten edo ez dituzten pertsonen mantentze fisikoa (indarra, arintasuna, koordinazioa, odol-zirkulazioa, arnasa hartzeko gaitasuna...). Ariketa eginez (dauden gaitasunetara eta/edo desgaitasunetara egokituta), aurreko funtzioak eta beste funtzio intelektual eta erlazional batzuk lantzen dira. Komenigarria litzateke tailer honetan parte hartzen dutenei planteatzea beren medikuarekin kontsulta egiteko aukera, haien baldintza fisiko partikularren arabera, agian ezingo baitituzte ariketa jakin batzuk egin. Edozein adinetan ariketa fisikoak duen garrantzia nabarmena da, baina are gehiago osasun-arazoak ohikoagoak direnean (hipertentsioa, muskuluetako minak, artrosia...). Ariketak ohikotasunez egiteak osasuna hobetzen lagun dezake.

Metodologia: ariketak eta mugimenduak egiten dira, melodia edo soinu batetik abiatuta. Saioek egitura bera jarraitzen dute urtean zehar, eta jolas moduko dinamika berriak gehitzen dira (mikado erraldoia...). Lehenengo minutuetan berotze- eta luzatze-ariketak egiten dira. Ondoren, erritmo- eta koordinazio-ariketa fisikoak egiten dira, edo gorputz osoa lantzeko ariketa-taula oso bat. Sokak, baloiak eta beste elementu batzuk ere erabiltzen dira ariketak egiteko.

Erlaxazio-tailerra: adin guztietan bezala, adineko pertsona batzuek antsietate-sintomak izan ditzakete, batzuetan adinarekin lotutako zirkunstantzien ondorioz. Beste batzuetan, antsietate-arazoek gaixotasun fisikoen sintomak eragiten edo okertzen dituzte. Erlaxazio-entrenamendua baliagarria izan daiteke arazo horietako batzuk prebenitzeko edo sendatzeko edo hobetzeko. Ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko teknika bat da.

Metodologia: Jacobsonen "erlaxazio progresiboko" metodoa erabiltzen da. Metodo hori ikasteko eta praktikatzeko erraza da, eta muskuluen uzkurdura, tonua edo aktibazioa murriztean datza. Gorputzaren muskuluak nahita tenkatuz, pixkanaka eta ordena bati jarraituz, tentsioa nabaritzen ikasten da (batzuetan ez gara konturatzen tentsioan gaudela...). Horrela errazagoa da "muskulua entrenatzea", ondoren erlaxatzeko. Erabili beharreko beste teknika batzuk: arnasketak, luzatzeak, automasajeak eta masajeak, bistaratzeak...

c) Aisia- eta kultura-jarduerak eta eskulanak.

Zazpi tailer proposatzen dira, beste arloetan bezala, aisiaren erabilera aktiboa sustatzeko eta interakzio soziala eta pertsonen arteko harremanak sustatzeko. Esku-hartze kulturalek komunikatzeko, esperientziak partekatzeko, gogoratzeko eta ezagutzak eskuratzeko espazio bat eskaintzen dute. Helburuak:

- Jarduera ludiko eta atsegina sustatzeko alternatibak eskaintzea, entretenimendurako, jarduerarako eta pertsonen arteko harremanetarako pizgarri gisa.
- Oinarrizko gaitasunak estimulatzea, hala nola arreta edo kontzentrazioa, oroitzapenaren aurreko atxikipena, kalkulua...
- Narriadura intelektualeko prozesuak eta arazo psikoafektiboak prebenitzea.
- Gizarte-harremanak indartzea, talde-kultura bat partekatuz eta sortuz (ezagutzak, ideiak, esperientziak eta interesak) eta pentsatzeko eta adierazteko gaitasuna besteren ikuspegitik landuz.
- Musika ahozko adierazpide pertsonal eta sozial gisa erabiltzea eta balioestea, gaitasun-mota desberdinak hobetzen laguntzeko.
- Autoestimua indartzea, autoerrealizazioaren eta mundu afektibo eta emozionalaren

hobekuntzaren bidez, nork bere burua onartzeko sentimenduak sortuz.

Tailer ludikoa: jokoek, karta-jokoek adibidez, komunikazio eta hausnarketa partekatua sustatzen dute; bestalde, analisirako eta erabakiak hartzeko ariketak dira, baita gaitasun kognitibo jakin batzuk estimulatzeko modu ona ere.

Metodologia: hainbat mahai-joko edo aire zabaleko joko proposatuko dira, erabiltzaileen gaitasunetara egokituta.

Irakurketako eta kultura orokorreko tailerra: pertsonari bere ingurunean gertatzen denari buruzko informazioa ematen zaio, bai eta gaur egungo gertaerei buruz bere iritziak emateko aukera ere. Eztabaidaren bidez, iritzi-trukea sustatzen da, eta, gainera, gaitasun intelektual jakin batzuk estimulatzeko espazio bat eskaintzen da. Pertsona autonomo batzuek zailtasunak izan ditzakete informazio jakin batzuk eskuratzeko, bai ikusmen-mugak dituztelako, bai informazioa behar bezala irakurtzeko eta/edo ulertzeko gaitasun edo prestakuntza nahikorik ez dutelako.

Metodologia: prentsa, aldizkariak edo erraz irakurtzeko moduko liburuak irakurtzea. Parte-hartzaileek edo dinamizatzaileek ozenki irakurriko dute, informatzeko eta eztabaida sortzeko.

Ikus-entzunezkoen tailerra: jarduera honetan ikus-entzunezko hainbat euskarri erabiltzen dira askotariko gaiak lantzeko, eta bereziki azpimarratzen dira gozamena eta norberaren ongizatean eta gizartearen ongizatean eragina duen aisialdi atseginari denbora eskaintzearen garrantzia. Ikus-entzunezko materiala erabiliz, taldean landu nahi diren alderdiak azalduko dira.

Metodologia: aztertu beharreko gaia eta ikusi beharreko euskarria (filma, dokumentala, erreportajea...) aurkeztuko dira. Ikustera joan aurretik, planteamenduak egingo dira (gaiari buruz zer dakiten, zer iritzi duten...), eta, horiek ikusi ondoren, eztabaida bat egingo da, azalpenekin eta taldearen ekarpenekin.

Musika-tailerra: musika, mintzaira komuna dugunez, komunikazio unibertsalaren gisakoa bilakatzen da, eta entzunez eta sortuz pertsonaren hazkuntza errazten du. Terapia musikala baliabide bat da helburu bat baino gehiago, eta erritmoa, memoria, entzumena, sormena, adierazpena, erlaxazioa, komunikazioa... lantzen lagunduko digu.

Metodologia: parte hartzeko metodologia bat erabiliko da. Metodologia horretan erabiltzailea ez da entzule soila izango, tailerreko eragile aktiboa baizik. Horretarako, baliabide didaktikoak erabiliko dira, hala nola imitazioa eta erakustaldia.

Eskulanen tailerra: mugimenduaren bidez, mugimenduaren koordinazioa sustatzen da tailer honetan, eta horrek eguneroko jardueretan moldatzen laguntzen du. Era berean, kontrol-sentsazioa eta autoestimua sustatzen dira, norberaren gaitasunak hautematean sentitzen den gogobetetasunagatik (betiere lana erabiltzaileen aukeretara eta gustuetara egokituz). Esku-hartze mota honekin, koordinazio biso-espaziala edo psikomotrizitate fina bezalako funtzioak mantendu eta berreskuratzen lagundu dezakegu; nahasmendu fisiko edo/eta psikikoak berreskuratzen laguntzen du, artikulazioen funtzionaltasuna eta giharren indarra hobetuz, eta horrek eguneroko bizitzako jarduerak gauzatzeko gaitasuna eta, beraz, autonomia mantentzen laguntzen du.

Metodologia: egin beharreko lana azaltzen da; horretarako, dinamizatzaileak eredu bat egiten du; eta ondoren, dagokion zeregina gauzatzen dute.

Asteko jarduera horiek guztiek bilakaera izan dezakete, adineko pertsonen premien eta interesen arabera. Horrela, taldearen beraren kudeaketan parte hartzea eta motibatzea sustatuko da.

d) Gizarte-harremanak eta komunitatean integratzea sustatzen dituzten jarduerak.

Jarduera horiek planifikatzeko, esku hartzeko hiru arlo bereizten dira (osasun kognitiboaren eta fisikoaren arloa, gizarte- eta komunitate-harremanen arloa, eta aisiaren, kulturaren eta hezkuntzaren arloa), izan ere, hiru arlo horietan biltzen dira kolektiboaren eskaera eta premia nagusiak. Kolektiboa izango da prozesuaren protagonista.

Osasun kognitiboaren eta fisikoaren arloa: esku-hartzearen arlo honetan osasunarekin lotutako arazoei, premiei eta eskaerei erantzun nahi zaie, OMEren ikuspegi integraletik, batez ere ikuspuntu fisiko, psikiko eta sozialetik.

Udaleko Gizarte Ekintza Sailak lan-sistema egituratu bat du tokiko osasun-zentroekin, eta, horregatik, arlo hori hiru udal-osasun zentroekin koordinatuta garatuko da, eta baterako lana egingo da kasuen jarraipenari, gai interesgarriei buruzko hitzaldien azalpenari eta sortzen diren bestelako alderdiei dagokienez.

Gizarte- eta komunitate-harremanen arloa: OMEk erabiltzen duen osasun-kontzeptuan sartuta egon arren, kolektibo horrentzat duen garrantzia dela-eta, interesgarria iruditzen zaigu gizarte-harremanen arlo esklusibo bat ezartzea. Pertsona batek maila horizontalean zein bertikalean dituen harremanen kantitate eta kalitate gisa ulertzen bada gizarte-laguntza; ideia horretatik abiatuta, arlo horretan sartzen da belaunaldien arteko programekin lan egiteko motibazioa, besteak beste. Proposatzen da sei hilean behin arlo honetako jarduera bat egitea, proposatutako formatuetako batean.

Arlo honen helburua da hainbat belaunalditako pertsonak elkartzeko eta elkarrekin jarduerak egiteko guneak sortzea, batez ere haur eta nerabeen eta adinekoen artean. Belaunaldien arteko programak, beraz, planifikatutako jarduera-multzo bat dira, helburu zehatzak dituztenak eta denboran jarraitasuna dutenak.

- Jarduerak gaztelekuekin, ludotekekin, ahalduntze-eskolarekin/berdintasun-arloarekin, elkarteekin eta hezkuntza-komunitatearekin: beste eragile komunitario batzuekin lankidetzan (ikastetxeak, musika-eskola, Adinkide, Hauskor...), eguneko arreta- zerbitzuan belaunaldien arteko jarduerak egingo dira, Pasaiako adinekoek eta adingabeek elkarrekin jarduerak egin ditzaten eta elkarrengandik ikas dezaten.

Aisialdi/kultura/hezkuntza arloa: kolektiboaren garapen pertsonalaren eta taldeko garapenaren ideiatik abiatuta, eta aisialdiak espazio hezitzaile gisa duen garrantzia kontuan izanik (alderdi sozialak, ludikoak, harreman-alderdiak barnean hartuta), parte-hartzea eta garapena sustatzen duten hainbat jarduera eta programa proposatzen dira, hala nola:

- Hitzaldiak eta informazio-saioak: Bizitza osoko ikaskuntzari esker, pertsonek autonomia eta autoestimu handiagoa dute, eta bi alderdi horiek bete beharrekoak dira aktibo eta osasuntsu egoteko. Bizialdi osoko ikaskuntza testuinguru horretan kokatu behar da, eta adinekoei aukera eman behar zaie beren gaitasun pertsonalak zein teknikoak edo ezagutzei dagozkienak hobetzeko. Proposatzen da mota horretako jarduera bat egitea sei hilean behin, proposatutako formatuetako batean (tailer laburra, informazio-saioa eta hitzaldia).

Beste eragile komunitario batzuekin lankidetzan, adinekoentzat interesgarriak diren gaiei buruzko informazio-saioak eskainiko dira, gehienez ordubeteko edo bi orduko iraupenarekin. Hainbat arlori buruzko hitzaldiak ematea proposatzen da, hala nola: lehen sorospenak (Gurutze Gorria edo DYA), bide-segurtasuna (Udaltzaingoa), etxeko segurtasuna (Ertzaintza), erorikoen prebentzioa (Osakidetza), medikamentuen erabilera egokia (farmaziak)...

- Tailer laburrak: adinekoen intereseko gai batzuk sakonago lantzeko, tailer laburrak egingo dira (3 eta 6 ordu artekoak, oro har), hainbat profesionalek eta/edo zerbitzuaren dinamizatzaileak berak eskainiak.

Hainbat arlori buruzko tailerrak egitea proposatzen da (osasuna, autozainketa...), hala nola adimen emozionala, masajea eta automasajea, xaboiak sortzeko tailerra...

- Txangoak: irteerak hurbileko lekuetara, gure ingurunea eta kultura hobeto ezagutzeko eta gozatzeko, eta une atsegin bat pasatzeko. Jardueraren helburu nagusia izango da taldearen gizarte-harremanak indartzea.

- Bisitak: udalerrian bertan edo inguruan egiten diren erakusketak edo jarduerak bisitatzeko irteerak. Gizarte-harremanak sustatzeko eta inguratzen gaituen kultura-ingurunea hobeto ezagutzeko, hurbileko lekuetara irteera laburrak egiteko aukera proposatzen da. Mota horretako jarduerak egingo dira taldeak eskatzean (abuztuan izan ezik), hainbat formatutan (txangoa, bisita eta/edo ospakizuna).

- Jaiak ospatzea: garai garrantzitsuetan, hala nola jai tradizionaletan (Inauteriak, Gabonak, San Tomas, M8, ikasturte-amaiera...), jarduera bereziak egingo dira (jolasak, luncha...) adinekoentzat eta/edo familientzat, gizarte-harremanak sustatzeko eta komunitateko festa esanguratsuenak bizitzeko helburuarekin.

Jarraian aurkezten den koadroan jasotzen dira proposatzen diren jardueretako batzuk:

Osasun-arloa Osasun fisikoa eta psikikoa	Gizarte- eta komunitate-harremanen arloa	Aisia/Kultura/Hezkuntza Arloa
Honako gai hauei buruzko hitzaldiak eta dibulgazio-jardunaldiak: - Erorikoen prebentzioa (Osakidetza) - Osasun-jardunaldiak (osasun-zentroa) - Bizi-prozesuen lanketa (dolua, etab.)	Belaunaldien arteko topaketak Komunitateko beste kolektibo eta/edo eragileen bisitak jasotzea, edo haiei bisita egitea: - Inguruko koruak - Bide-segurtasuna (Udaltzaingoa) - Segurtasuna etxean, iruzurrak (Ertzaintza)	Bisita kulturalak Txangoak Ospakizunak
Eta zerbitzuaren erabiltzaileek proposatutako beste jarduera batzuk		

JARDUEREN ASTEKO EGUTEGIAREN PROPOSAMENA

ORDUTEGIA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
10:00-10:10	Egunon	Egunon	Egunon	Egunon	Egunon
10:10-11:00	Gimnasia	Gimnasia	Erlaxazio-tailerra	Erlaxazio-tailerra	Gimnasia
11:00-11:45	Estimulazio kognitiboa	Estimulazio kognitiboa	Askotariko tailerrak (musika, irakurketa, kultura orokorra,	Askotariko tailerrak (musika, irakurketa, kultura orokorra,	Eskuzko terapia Komunitate-jarduerak (hitzaldiak,

			teknologia berriak ...) Komunitate-jarduerak (hitzaldiak, txangoak, tailerrak...)	teknologia berriak ...) Komunitate-jarduerak (hitzaldiak, txangoak, tailerrak...)	txangoak, tailerrak...)
11:45-12:30	Tailer ludikoa	Tailer ludikoa	Tailer ludikoa	Eskuzko terapia	Eskuzko terapia

Prestazio eta jarduera horien guztien ardatz nagusia izango da Pertsonarengan Oinarritutako Arreta Ereduaren bidez lanketa egitea, eta pertsonaren premiak ikuspegi integral batetik ulertzea; hau da: askotariko arloak barnean hartzen dituzten programak eta jarduerak eskaintzea, premia desberdinak betetzeko. Bestalde, erabiltzaileek une bakoitzean dituzten trebetasunak eta gaitasunak ere jaso beharko ditu zerbitzuak, eta horrek etengabeko egokitzapena ekarriko du denboran.

Jarduera horiek diseinatzeko funtsezko ardatz gisa, honako premisa hauek hartzen dira abiapuntutzat: metodologia parte-hartzailea, sareko lana eta ebaluazioa.

7.1.- Erabiltzaileen parte-hartzea sustatzeko estrategiak

Gaur egun gure gizartean oinarririk gabeko sinesmen ugari daude, zahartzeari buruzko ikuskera negatiboan eta, ondorioz, adinekoen diskriminazioan eragiten dutenak. Adinekoei beraiei eragiten diete erabakiak hartzerakoan eta bizi diren bizitzaren fasea proiektatzerakoan, bai eta haien familiei eta gainerako gizarteari ere. Ikuskera hori alda daiteke, baina zahartzea bizitzeko moduari buruz gainerakoei ematen diegun irudiaren baitan egongo da aldaketa. Horretarako, honako ardatz hauetan oinarritutako esku-hartzea proposatzen da: Zahartze egokia, parte-hartze aktiboa (pertsonala eta soziala), garapen pertsonala eta gaitasun- eta integrazio-sentimendua. Atal honetarako honako helburu hauek proposatzen ditugu:

- Taldearen eta erabiltzaileen parte-hartzea sustatzea taldean bertan eta ingurune hurbilenean.
- Taldeko erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea, ingurune hurbilenak eskaintzen dituen baliabideetara hurbilduz eta parte hartzeko eta harremanetarako aukera berriak eskainiz.
- Belaunaldien arteko trukea eta elkarrengandik ikasteko harremana sustatzea.
- Ingurunea sentsibilizatzea eguneko arreta-zerbitzuan parte hartzen duten adinekoen errealitateari buruz.
- Inguruko baliabideekin lankidetzan aritzeko proposamenak eta ekimenak sustatzea, bakardadea, isolamendua eta gizarte-bazterketa saihesteko.

Lehen esan bezala, gure proposamena Pertsonarengan Oinarritutako Arretara bideratuta dago, arreta integrala eskaintzea ahalbidetuko duten esku-hartze eta laguntza profesional batzuk eskainiz. Horretarako, ezinbestekoa izango da erabiltzaileen beharrei erantzutea, baina ez bakarrik dinamizatzaileak eta laguntza-teknikariak hautematen dituzten beharrei, baita erabiltzaileek eurek sentitzen dituzten premia eta interesei ere; izan ere, premia eta interes horiei erantzuteak taldearen eta komunitatearen dinamikan parte-hartze aktiboagoa izatea ekarriko du. Proiektuan zehar, banakako arretaren garrantzia definitu da; arreta hori oinarritzen da erabiltzaile bakoitzaren gaitasunetan, eta baita bere behar eta interesetan ere. Hori guztia jasoko da esku hartzen duten profesionalek egiten duten Banakako Arreta Planean. Hona hemen helburu horretara bideratutako

estrategia eta ekintza nagusiak:

- Banakako arretan oinarritutako metodologia (Pertsonarengan Oinarritutako Arreta).
- Etengabeko ebaluazioa. Proiektu honen ebaluazio-sistemaren barruan, jarduerak diseinatzeko eta daudenak hobetzeko sistematika bat sartu dugu, erabiltzailea protagonista duena.

Bestalde, erabiltzaileek zerbitzuan parte-hartze aktiboa izan dezaten, beharrezkoa izango da "eroso" sentitzea; beraz, esku-hartzearen helburuetako bat izango da taldeko kide izatea bultzatzea, talde-kontzientzia sortuz; izan ere, horrek dinamika aktiboak eta arinak ahalbidetuko ditu. Horretarako, aurretik deskribatutako beste estrategia batzuez gain, honako ekintza hauek proposatzen dira:

- Ospakizunak: taldekideen urtebetetzeak eta jaiak edo inguruko ekitaldi garrantzitsuak.
- Hainbat ekintza: bisitak, txangoak, belaunaldien arteko jarduerak.
- Metodologia aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzea asteko jardueretan.

7.2.- Erabiltzaileak eta zerbitzua komunitatera hurbiltzeko estrategiak

Erabiltzaileen parte-hartze aktiboaren sustapena ez da talde-testuingurura mugatu behar; aitzitik, askoz eremu zabalagoa hartzen du, eta beharrezkoa da proiektuak berak ere ingurunean parte-hartze aktiboa sustatzea, proiektu honen helburuetan jasotzen den bezala. Aurkezten diren ekimenen helburua da, alde batetik, zerbitzua bere ingurune hurbilean ikusaraztea, eta, bestetik, taldeak eta erabiltzaileek komunitatean egiten diren jardueretan parte har dezaten sustatzea; horrek ahalbidetuko du komunitateak taldearen berri izatea eta parte-hartzaileen autoestimua hobetzea. Atal honetan bi parte-hartze eta integrazio maila bereizten dira eremu komunitarioan: eguneko arretako taldean eta udalerrian bertan. Esan bezala, jarduera guztiak, neurri batean, gizarte-harremanak eta erabiltzaileen integrazioa hobetzera bideratuta badaude ere, parte-hartze komunitarioa zuzenago bultzatuko duten beste jarduera osagarri batzuk egitea proposatzen da.

Helburuak

- Urteko jai eta ospakizun esanguratsuenak ospatzea.
- Zerbitzuaren erabiltzaileen arteko gizarte-harremanak sustatzea.
- Taldeko kide izatearen sentimendua indartzea.
- Bakardade-sentimendua eta isolamendua murriztea.
- Proiektuaren jarduera paraleloak eta osagarriak egitea sustatzeko espazio bat eskaintzea, auzoan eta udalerrian eskaintzen diren baliabide komunitarioak erabiliz, hala nola erretiratuen klubak.
- Komunitatean zerbitzua ikusaraztea.

Pasaiako eguneko arretako taldean:

- Ospakizunak: taldean eta ohiko ordutegian egingo litzatekeen programa honen bidez, alde batetik, urteko jairik esanguratsuenak ospatu nahi dira, hala nola Gabonak, San Fermin, Inauteriak...

Ospakizuna gozamenerako eta taldean elkarreragiteko izango denez, ideiak erabiltzaileengandik sortzea sustatuko da; hartara, erabiltzaileak ekitaldiaren partedun egingo dira eta taldean duten balio-sentimendua indartuko da. Ekitaldi horiek prestatzeko, aldez aurretik apaingarriak egingo dira eskulan-tailerrean, edo jaiaren ohiko abestiak entseatuko dira. Gainera, proposatzen da hilabete bakoitzaren amaieran erabiltzaileen urtebetetzeak ospatzea, eta tarte horretan urteak bete dituzten pertsonak zoriontzea, jai txiki bat eginez.

- Hilero harremanetan jartzea hurbilen dagoen osasun-zentroarekin: proiektua aurkezteko, kasuak detektatzeko eta haien jarraipena egiteko, eta zentroko osasun-langileek eguneko arreta-zerbitzuan bizi-ohitura egokiei buruzko hitzaldiak emateko aukera proposatzeko.

- Beste eragile komunitario batzuekin koordinatzea: udalerrian egiten diren jarduerak ezagutzeko, barne-bilerak egingo dira zerbitzuko udal-koordinatzailearen eta gizarte-langilearen eta eguneko arreta-zerbitzuaren dinamizatzailearen artean. Zerbitzuaren koordinatzaileak eragile komunitarioekin egiten dituen bilerei esker (erretiratuen elkartea, Gizarte Ekintza Saila, Kultura Saila, Berdintasun Saila, inguruko elkarteak, Adinkide, Hauskor...), udalerriko adinekoentzako jarduerak ezagutu ahal izango dira, eta informazio hori eguneko arreta-zerbitzuaren dinamizatzaileari helaraziko zaio. Hark eguneko arreta-zerbitzuko erabiltzaileei jarduera horien berri emango die, eta horietan parte hartzera animatuko ditu.

- Belaunaldien arteko topaketak egitea.

- Ate irekiko egunak eta bisitak zentrora.

8.- Metodologia. Esku-hartze mailak eta jarduera-eremuak

Esku-hartzerako metodologia aktiboa eta parte-hartzailea proposatzen da. Horren bitartez, talde-dinamika aprobetxatuz, erabiltzaileen ekimenak sortu eta bultzatuko dira, beren behar eta nahien arabera. Jardueren dinamizatzailearen zeregina, une oro, izango da dinamika horien bideratzaile eta motibatzaile izatea; eta, horretarako, garatzen den jarduerarako egokiak diren teknikak erabiliko ditu.

Zerbitzuak banakako esku-hartzeak zein kolektiboak egingo ditu, baita esku-hartze komunitarioa ere:

- Banakako eremua: esku-hartzea pertsona ardatz duen arreta-ereduan oinarrituko da. Eredu horren arabera, jarduerak haren premia, nahi eta gaitasunetara egokituko dira, eta, beharrezkoa denean, kasua erreferentziazko gizarte-langilearengana bideratuko da, esku-hartze bateratu eta koordinatu bat egiteko. Egiten diren jarduerak prebentziozkoak izango dira, eta parte-hartzea sustatuko dute, erabiltzaileen ekimena sustatuz.
- Talde-eremua: dinamizatzaileek talde-ekintzak egingo dituzte, tailer eta jarduera iraunkorrak antolatuz, erabiltzaileen arteko gizarte-harremanak eta haien integrazioa eta taldearen kohesioa sustatzeko.
- Komunitate-eremua: teknikari dinamizatzaileek ekintzak egingo dituzte zaurgarritasun- eta/edo hauskortasun-egoeran dauden adinekoak beren ingurune hurbilenean integratzen direla bermatzeko eta, horrela, Pasaia lagunkoiagoa eraikitzeko. Horretarako, funtsezkoa da komunitatean dauden baliabideak ezagutzea eta zentroko jarduerak bizitza komunitarioan integratzea.

Ildo horretan, Hauskor eta Adinkide programak eguneko zerbitzuaren plangintzan sartuta egon behar dira; izan ere, programa horiek hauskortasun-egoeran, ahultasun-egoeran eta mendekotasun moderatuan dauden adinekoen parte-hartzea sustatzen dute, dauden baliabide sozial eta komunitarioetara hurbilduz.

Lehen azpimarratu den bezala, esku-hartze orokor bat proposatzen da: elkarren artean lotutako jarduera-multzo bat. Helburua da problematikak prebenitzea (emozionalak eta/edo psikosozialak) eta onuradunen bizi-kalitatea hobetzea.

9.- Koordinazio-sistemak

Koordinazio-sistemaren helburuak hauek dira: zerbitzuaren kudeaketa bermatzea; gizarte-zerbitzuetan eta komunitatean integratutako lan-testuingurua eskaintzea; eta prozesuak, programazioa eta zerbitzuaren funtzionamendua ahalbidetzea, sortzea eta diseinatzea. Horregatik, koordinazioa esku-hartzearen estrategia integratu gisa ulertzen dugu, aurreko ataletan adierazitako alderdi metodologikoekin bat etorriz, eta programaren ardura duen udaleko Gizarte Ekintza Sailaren jarraibideekin bat etorriz. Lau koordinazio-maila identifikatu ditugu.

Lehenengo maila proiektuko taldearen eta Pasaiako Gizarte Ekintza Sailaren artean egingo den koordinazioari dagokio. Zerbitzuaren plangintza eta ebaluazio orokorreko prozesuekin lotuta dago, baita zerbitzuaren etengabeko kudeaketako prozesuekin ere (altak, bajak, gorabeherak, proposamen berriak).

KUDEAKETA-JARDUERAK	MAIZTASUNA	PARTE-HARTZAILEAK	BERRIKUSITAKO ALDERDIAK	Urteko bilera-kopurua
Koordinazioa eta jarraipena	Hilekoa eta etengabea	Zerbitzuko udal arduraduna. Zerbitzuaren dinamizatzailea	Kontratuaren jarraipena, zerbitzua behar bezala emateko	11 bilera
Kasuen jarraipenaren eta kudeaketaren berri ematea	Hilekoa eta etengabea	Zerbitzuko udal arduraduna. Eguneko arreta-zerbitzuaren dinamizatzailea. Hauskor Programako teknikaria (programaren erabiltzailearen beharren arabera).	Artatutako kasuak berrikustea Erabiltzaileekin gertatzen diren gorabeherak ebaluatzea eta bideratzea	11 bilera
Ebaluazio orokorreko bilera	Urtero	Zerbitzuko udal arduraduna. Zerbitzuaren kudeaketaren arduraduna (enpresa lizitatzailea). Zerbitzuko profesionalen taldea (hautemandako beharren arabera).	Urteko memoria bidaltzea eta ebaluatzea. Zerbitzuaren garapena eta etorkizuneko hobekuntza-proposamenak ebaluatzea.	bilera 1

Bigarren maila batean dago erabiltzaileen senideekiko edo erreferentziazko pertsonekiko koordinazioa. Modu jarraituan egingo da, eta erabiltzaileak Eguneko Arreta Zerbitzuan jarduten hasten denean hasiko da. Une hori baliatuko da zerbitzuaren funtzionamenduaren berri emateko erabiltzaileari eta haren senideei edo erreferenteei. Behin zerbitzuan sartuta, komunikazioa etengabea izango da, eta, besteak beste, honetarako balioko du: arreta-jarraibide egokiei buruzko informazioa emateko, erabiltzaile bakoitzaren kalitatean eragin positiboa izan dezaketen udalerriko beste zerbitzu edo jarduera batzuei buruzko informazioa emateko, laguntza emozionala eskaintzeko... Horretarako, dinamizatzaileei telefono mugikor bat emango zaie, eta telefono horren zenbakia erreferentziazko pertsonei emango zaie. Bestalde, eta informatzeko ez ezik erabiltzaileen familiak zerbitzuan nolabait inplikatzeko asmoz, jarduera informatibo edo ludikoren bat egiteko aukera proposatzen dugu.

KUDEAKETA-JARDUERAK	MAIZTASUNA	PARTE-HARTZAILEAK	BERRIKUSITAKO ALDERDIAK	Urteko bilera kopurua
Koordinazioa Eguneko Arreta Zerbitzuaren erabiltzaileen senideekin edo erreferentziazko pertsonekin	Urtero eta etengabe	Zerbitzuko udal arduraduna. Eguneko arreta-zerbitzuaren dinamizatzailea. Senideak eta/edo erreferentziazko pertsonak.	Zerbitzuari buruzko informazioa. Elkarri informazioa ematea, erabiltzailearen egoerari buruz. Arreta egokia emateko jarraibideak eskaintzea. Beste zerbitzu batzuei buruz aholkatzea	bilera 1 (gutxienez)
Koordinazioa Hauskor programako erabiltzaileen senideekin edo erreferentziazko pertsonekin	Urtero eta etengabe	Zerbitzuko udal arduraduna. Hauskor Programako teknikaria. Eguneko arreta-zerbitzuaren dinamizatzailea (kasu bakoitzaren beharren arabera). Senideak eta/edo erreferentziazko pertsonak.	Zerbitzuari buruzko informazioa. Elkarri informazioa ematea, erabiltzailearen egoerari buruz. Arreta egokia emateko jarraibideak eskaintzea. Beste zerbitzu batzuei buruz aholkatzea	bilera 1 (gutxienez)

Hirugarren koordinazio-mailan dago taldearen barne-koordinazioa/-gainbegiratzea. Lantaldea osatzen duten kideek egiten dute. Gutxienez hilean behingo koordinazioa ezartzen da, baina komunikazio arina bermatuko da, jarduera profesionalen lanketa integratua eta esku-hartzearen jarraipen eguneratua bermatzeko. Bilera horien edukien artean, honako hauek daude: zerbitzuaren plangintza eta ebaluazio orokorra, esku hartzeko proiektuaren diseinua eta ebaluazioa, hautemandako beharren azterketa, eta udalaren gidalerroak eta helburuak taldearen jardueran txertatzea.

KUDEAKETA-JARDUERAK	MAIZTASUNA	PARTE-HARTZAILEAK	BERRIKUSITAKO ALDERDIAK	Urteko bileren kopurua
Barne-koordinazioko bilerak	Hilero	Zerbitzuko profesionalen taldea.	Zerbitzuaren garapenaren jarraipena	11 bilera

Laugarren mailan dago baliabide komunitarioekiko kanpo-koordinazioa. Proiektu honen helburuak dira, besteak beste: adinekoen eta komunitatearen arteko harreman- eta lankidetza-bideak bideratzea, adinekoek dituzten ezagutzak komunitatean aprobetxatzea eta sozializatzea, eta adinekoak ikusaraztea. Horretarako, ezinbestekoa izango da koordinazio-bilerak egitea zerbitzutik kanpoko eragileekin, hala nola udaleko beste sail batzuekin (kultura, kirola eta berdintasuna), Hauskor enpresako teknikariarekin, Adinkideko teknikariarekin, erretiratuen klubekin eta udalerriko beste elkarte batzuekin. Bilera edo harreman horiek beharrezkoa denean egingo dira, eta eragile horietakoren batekin aldizkakotasun jarraitua ezarri ahal izango da, adibidez adinekoentzako jarduerak kudeatu edo antolatzen dituzten eragileekin.

KUDEAKETA-JARDUERAK	MAIZTASUNA	PARTE-HARTZAILEAK	BERRIKUSITAKO ALDERDIAK	Urteko bileren kopurua
Bilerak eragileekin comunitarios y diferentes departamentos del ayuntamiento	Sei hilean behin	Zerbitzuaren dinamizatzailea Zerbitzuko udal arduraduna. Zerbitzuko profesionalen taldea. Eragile komunitarioak. Udaleko sailetako profesionalak (gaiaren arabera)	Egiten diren lankidetzen jarraipena. Lankidetza berriak proposatzea	2 bilera eragile bakoitzarekin
Bilerak edo harremanak erretiratuen klubetako zuzendaritza batzordearekin	Etengabe, eta beharrezkoa denean	Zerbitzuaren dinamizatzailea Erretiratuen klubetako zuzendaritza batzordeak	Proiektuan eskainitako zerbitzuei buruzko informazioa ematea Erretiratuen elkartean egiten diren edo egingo diren jarduerei buruzko informazioa biltzea	6 bilera edo kontaktu
Bilerak beste eragile komunitario batzuekin	Etengabe, eta beharrezkoa denean	Zerbitzuko profesionalen taldea. Eragile komunitarioak	Eragile horiek zerbitzuaren esku-hartzean duten parte-hartzea kudeatzea (hitzaldiak, belaunaldi artekoak...) Hitzartutako eragile komunitario berrien inklusioa kudeatzea	-

10.- Zerbitzuaren ezaugarriak

Pasaiako Udalak Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean eta 185/2015 Dekretuan ezarritakoaren arabera eskainiko du zerbitzua.

- Zerbitzua Pasai Antxoko udal lokalean emango da, Eskalantegi kaleko 53. zenbakian.
- Zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da, udalak eskariaren arabera zehazten duen ordutegian.
- Egutegia urtero finkatuko da, irailetik hurrengo urteko uztailera.
- Talde bakoitzean gehienez 20 pertsona egongo dira. Gutxienez sei pertsona beharko dira talde bat osatzeko.
- Talde bakoitzak dinamizatzaile bat izango du gutxienez.
- Pasaiako Udalak arestian aipatutako ezaugarriak egokitu ahal izango ditu zerbitzuaren eta erabiltzaileen beharretara, eta, era berean, talde-kopurua aldatu ahal izango du, eskaera-kopuruaren arabera.

11.- Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa

Zerbitzuaren prezioa erabiltzaileen diru-sarreren araberakoa izango da:

- Erabiltzailearen edo haren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen hileko diru-sarrerek diru-sarrerak bermatzeko errenta gainditzen badute, kuota hilean 16,58 eurokoa izango da.
- Erabiltzailearen edo haren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen hileko diru-sarrerek diru-sarrerak bermatzeko errenta gainditzen ez badute, kuota hilean 11,02 eurokoa izango da.

Kuota urtero berrikusiko da eta erabakitako zenbatekoa udal tasetan argitaratuko da.

12.- Erabiltzaileen betebeharrak

- Dagokion ekarpena ordaintzea (aurreko atalean ezarritakoaren arabera).
- Hitzartutakoaren arabera, zerbitzuko jardueretara joatea eta, joan ezean, arduradunari jakinaraztea. Eta, ahal den neurrian, absentziaren iraupenari buruzko informazioa ematea.
- Eskatutako baldintzak betetzea.
- Zerbitzuaren barne-araudian ezarritakoa betetzea.
- Absentziak ezin izango dira hamabost egun baino gehiago luzatu, zerbitzuan ezarritako oporraldian izan ezik. Ospitaleratze-aldiak salbuespen-kasutzat hartuko dira.

Absentzia horiek justifikatuak izan ala ez, ez dute eraginik izango ordaindu beharreko kuotan, hau da, hileko kuota osoa ordainduko da.

13.- Pasaiako Udalaren betebeharrak

Kontratatutako zerbitzua Gizarte Ekintza Sailari atxikita egongo da, eta zerbitzu hori koordinatu eta gainbegiratzeko programaz arduratuko den gizarte-langile bat esleituko da.

Besteak beste, honako eginkizun hauek nabarmentzen dira:

- Udalerriaren beharrak antzematea.
- Araudia egitea.
- Erantzun gabeko eskaerari buruzko informazioa jasotzea.
- Zerbitzua ematearen ondoriozko publizitatea gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Zerbitzua eskuratzeko eskaeretan agertzen diren beharren diagnostikoa eta balorazioa.
- Sartzeko eskaerak ebaztea eta zerbitzua esleitzea.
- Erabiltzailearen banakako arreta-plana egitea.
- Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa zehaztea.
- Erabiltzaileen egoeraren jarraipen orokorra eta zerbitzuaren kalitatearen ebaluazioa.
- Zerbitzuan alta emanda dauden pertsonak, behin betiko bajak eta aldi baterako eteteak zehaztea eta erakunde esleipendunari jakinaraztea.

Eskumen horietako bat ere ezin izango zaio esleitu, interpretatu, lekualdatu edo eskuordetu Gizarte Ekintza Saila ez den beste erakunde bati, sail hori arduratuko baita eskumen horiek bere langileen bidez egikaritzeaz.

14.- Zentroko langileen betebeharrak

Dinamizatzaileen eginkizunak honako hauek izango dira:

- Parte-hartzaileei harrera egitea, konpainia egitea eta entzutea.
- Erabiltzaile bakoitzaren arreta-plana lantzea, kasu bakoitzeko gizarte-langilearekin koordinatuta.
- Aldizkako koordinazioa proiektuko gizarte-langilearekin eta baliabidean parte hartzen duten beste profesional batzuekin (Hauskor, Adinkide, SOAF...).

- Aldez aurretik adostutako jarduerak planifikatzea, programatzea eta gauzatzea.
- Komunitateko beste baliabide batzuek artatu ditzaketen egoeren detekzioa.
- Gizarte-ingurunea ezagutzea (elkarteak, erakundeak, baliabideak...).
- Adinekoen parte-hartzea sustatzea.
- Gizarte-baliabideak sustatzea eta bizikidetza bultzatzea, isolamendua eta bakardadea saihesteko.
- Aisialdian denbora betetzearen aldeko gogoa piztea.
- Erabiltzailearen autonomiaren alde egitea.
- Ekintza paraleloak egitea, proiektuaren osagarri gisa, batez ere maila komunitarioan.
- Komunitatean antolatuta dauden beste baliabide batzuetan parte hartzeko ahaleginak egitea.

15.- Zerbitzua izapidetzeko prozedura

Udaleko gizarte-zerbitzuetan eskaera aurkeztean hasiko da prozedura. Gizarte-langileak eskatzaileari zerbitzuari buruzko informazioa emango dio (ezaugarriak, baldintzak, onurak, zailtasunak, epeak...).

Eskabide-orria emango zaio. Eskatzaileak inprimakia beteta aurkeztu beharko du, ondoren adierazten den dokumentazioarekin batera:

- Identifikazio-dokumentuak.
- Udalak balorazio ekonomikorako behar eta/edo baloratzen dituen dokumentuak.

Dokumentazioa aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoa bete beharko da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez bada, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari, egon daitezkeen akatsak zuzendu eta dagokion dokumentazioa aurkez dezan. Bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikuluarekin bat etorriz, jakinaraziko zaio eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, 21. artikuluan ezartzen den ebazpena eman ondoren.

Eskabidea bete ondoren, gizarte-zerbitzuek dokumentazioa eta egoera aztertuko dituzte. Eskaerak aztertu ondoren, gizarte-zerbitzuetako teknikariek txosten bat egingo dute, eskatzaileak baldintzak betetzen dituen ala ez adierazteko. Proposamena aldekoa bada, interesdunak zerbitzuagatik ordaindu behar duen tasa zehaztuko da.

Azkenik, proposamena dagokion organoari helaraziko zaio, behin betiko ebazpena eman dezan, txostenari jarraikiz. Horren guztiaren berri emango zaio interesdunari.

16.- Itxaron-zerrenda

Eskaera batzuk erantzunik gabe geratzen badira planteatutako behar guztiei aurre egiteko plazarik ez dagoelako, itxarote-zerrenda bat egingo da.

Itxarote-zerrenda egiteko, honako aldagai hauek hartuko dira kontuan: Interesduna bakarrik bizi bada: familiaren laguntza, etxebizitzaren egoera, zerbitzua jasotzeko itxarote-denbora, etxean dituen laguntza formalak eta informalak.

17.- Zerbitzuari uko egitea

Zerbitzuari uko egiten zaiola ulertuko da honako kasu hauetan:

- Borondatezko baja ematen denean.
- Zerbitzua arautzen duten baldintzak betetzeari uzten dionean.
- Zerbitzua emateaz arduratzen diren langileek ikusten dutenean erabiltzailea ez dagoela zerbitzuan jarraitzeko moduan. (Txosten batean jasoko da, eta gizarte-zerbitzuetako teknikariekin baloratuko da).
- Zerbitzuan sartu zenetik mendekotasun-egoera aldatu dela balioesten denean, eta beste zerbitzu bat egokiagoa dela irizten denean.
- Hiltzen denean.
- Behar bezala oinarritutako beste arrazoi batzuk.

18.- Zerbitzua ukatzea

Zerbitzua ukatu ahal izango da, honako arrazoi hauetako batengatik:

- Ezarritako baldintzaren bat ez betetzea.
- Behar bezala oinarritutako beste arrazoi batzuk.

19.- Ebaluazioa

Eguneko arreta-zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzarekin esku hartzeko prozedurari jarraituz, banakako eta taldeko esku-hartzeak jarraipena eta ebaluazioa izatea proposatzen dugu. Aurrena, hasierako ebaluazioa egingo du zerbitzuaren dinamizatzaileak, eta "harrera-aldian" egingo du. Ondoren, prozesuaren ebaluazioa egingo da esku-hartze osoan zehar. Ebaluazio horretan pertsonaren jarrera eta gaikuntza baloratuko dira, eta aldaketa nabarmenak antzematen badira, esku hartuko da. Eta, azkenik urteko ebaluazioa egingo da. Ebaluazioa horretan zerbitzuaren dinamizatzaileak pertsonaren eta taldearen egungo egoera ebaluatuko du, bai eta esku-hartzearen eraginkortasuna eta proposatutako helburuak zein neurritan lortu diren ere. Horretarako, jasotako erregistroak ere erabiliko dira (gorabeheren historikoa, asistentzia-erregistroa, jardueraren erregistroa...).

Bestalde, erabiltzaile bakoitzari gogobetetasun-inkesta bat egingo da, eta emaitzak urteko memorian aurkeztuko dira.

20.- Zerbitzuan genero-ikuspegia sartzea

Pasaiako Udalak badu Berdintasun Plan bat (gaur egun, II. Berdintasun Plana, 2023-2027). Plan horretan, beste helburu espezifiko batzuen artean, honako hauek jasotzen dira:

- Teknikarien eta langileen etengabeko prestakuntza eta gaikuntza, udal-jarduera osoan genero-ikuspegia txertatzeko.
- Arreta integrala bermatzeko baliabideak eskaintzea.
- Zaintza-lanak modu bidezkoagoan banatzeko prozesuak hastea.
- Emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzea, emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa areagotzea eta eragiteko gaitasuna garatzea.

Jarraibide horiei jarraikiz, jarraian jaso eta zabaldu dira proiektu honetan garatu beharreko jarduerak:

Legez nahitaezkoak diren berdintasun-irizpideak betetzeaz gain, zeharkako jarduera batzuk proposatzen dira, proiektu honetan parte hartzen duten pertsonek eta eragileek ikuspegi berri bat izan dezaten, gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak ikusarazteko eta horiek birformulatzeko:

- Lantaldearen prestakuntza/sentsibilizazioa.

Taldea osatzen duten pertsonak berdintasunean sentsibilizatzea eta prestatzea proposatzen da: helburua da lantaldeak kontzeptuak barneratzea, printzipio sexistak eta/edo matxistak oinarri dituzten portaerak eta egiturak hautemateko kontzeptuak barneratzea, eta horiek deseraikitzeko tresna eta kontzeptu teoriko eta proaktiboak garatzea. Hala, zerbitzuko profesionalen taldeak prestakuntza/sentsibilizazio horretan parte hartuko luke 2024-2025ean.

- Genero-ikuspegia txertatzea gainerako eragile komunitarioekiko eta/edo pertsonekiko harremanetan. Beste eragile komunitario batzuekin jarduera berriak diseinatzeko eta egiteko orduan, genero-ikuspegia izango da baloratu beharreko itemetako bat. Bestalde, senideekin, erreferenteekin edo eragile komunitarioekin izaten ditugun komunikazioetan genero-hizkuntza behar bezala erabiltzearen garrantzia hartuko da kontuan.

- Material egokiak erabiltzea. Materialak aukeratzerakoan, batez ere Eguneko Arreta Zerbitzukoak, genero-ikuspegia hartuko da kontuan: ez da sartuko hizkuntza modu desegokian erabiltzen duen materialik, ezta genero bakoitzaren zereginak eta rolak estereotipatzen dituenik ere.

- Eguneko arretako taldea genero-ikuspegiari buruz sentsibilizatzea; taldea eta senideak zaintza-kargen eta denboraren banaketa egokian sentsibilizatzea sustatuko da. Besteak beste, gizona etxeko lanetan eta bere burua eta beste pertsona batzuk zaintzen inplikatzea sustatuko da. Horretarako, taldeen eguneroko dinamikan gai horrekin lotutako artikuluak (aldizkarietakoak edo egunkarietakoak) sartuko dira, eta horri buruzko ikus-entzunezko tailerren bat ere egin ahal izango da.

- Ospakizunak: taldeek eta erabiltzaileek berdintasunarekin lotutako ekitaldietan parte har dezaten, eguneko arretako taldeen egutegian sartuko da genero-ikuspegiarekin lotutako egun berezien ospakizuna, hala nola: emakumearen eguna (8 - M), genero-indarkeriaren aurkako eguna (25 - N), eta, kasu batzuetan, udalerriko emakume-elkarteekin lankidetzan aritzeko aukera.